

ASTÚLEZ

– ARABA / ÁLAVA –

Astulez Gaubeako udalerraren barruan dago. Gasteiztik 24 km-ra dago, eta hiriburutik haraino joateko biderik errazena N-I errepidea hartzea da, Burgoserantz, Langraiz Okan dagoen 340 irteeraraino. Handik, A-2622 errepidea hartuta, Pobesko zeharkaldiraino joan, eta beste 25 km egin, Karankarako bidea hartu arte. Karanka zeharkatu ondoren, Astulezen egongo gara.

Mendi altu harritsu inguratuta dago; ipar-mendebaldean Risca Haitza du, esaterako, eta hegoaldean, Raso mendia. Mendebaldean ez du mendirik, ibaia baizik, kilometro gutxira: Omecillo.

Arabako toponimiaren aditu batzuek diotenez, lotura egon daiteke Astulez izenaren eta Asturiasen izen zeltaren artean. Hurbil dauka Valpuestako monasterioa, 3 km-ra zuzen joanda. Asturiasko Alfontso II.aren garaian altxatu zuen Joan gotzainak, IX. mendean hasieran. Antso IV.ak Gesaltza Añanako Foruak zabaldu zituela aipatzen duen 1290. urteko dokumentu batean, bere jurisdikzioaren barruan aipatzen ditu Donemiliaga San Zadornil, Karanka, Lantarón eta Astulezko lurak. Orduan, *Astuliz* izenaz ageri da. Horrela sartu zen Gesaltza Añanako ermandadean. Handik mende batera, 1351n, Astulez izenez aurkitzen dugu, eta gaur egunera arte gorde du izen hori.

Oraindik ere geratzen dira Astulezen garai oparoenen arrastoak. Haitz baten gainean dagoen eraikina babeserako erabiliko zen garai batean. Eta muino baten gainean ezarrita, X. mendeko gaztelu batek menpean hartzen du herri osoa; argi erakusten du lur horiek babesa behar zutela. Izan ere, Gaztelatik Kantauriko kostalderantz zihoan bidean zegoen, eta musulmanen inbasioen arriskua zuten. Hau da, gainera, garai modernora arte iraun duen inguru horretako gaztelu bakarra (Lantaronekoak edota Berbeia-koak, adibidez, ez dute iraun). Astulez Gaubeako udalerrian sartuta dago gaur egun, Añanako kuadrillan.

Esta localidad se encuentra en el municipio de Valdegovía. Dista 24 km de Vitoria-Gasteiz desde donde se accede por la N-I en dirección hacia Burgos, hasta la salida 340 de Nanclares de la Oca. Desde aquí, se sigue por la carretera A-2622 hasta la travesía de Pobes, donde se continúa durante casi 25 km hasta la desviación hacia Caranca. Una vez atravesado este pueblo se llega a Astúlez.

Se ubica en un entorno rodeado por altos montes rocosos, como la Peña Risca por el Noroeste, o la de Raso por el Sur, excepto al Oeste, donde a pocos kilómetros discurre el río Omecillo.

Según algunos estudiosos de la toponimia alavesa, podría verse relación entre Astúlez y el nombre céltico de Asturias. El cercano monasterio de Valpuesta, a 3 km en línea recta, fue fundado en época de Alfonso II de Asturias por el obispo Juan, a principios del siglo IX. En un documento de 1290, donde Sancho IV amplió el Fuero de Salinas de Añana, incluye dentro de su jurisdicción los términos de San Millán de Zadornil, Caranca, Lantarón y Astúlez, que aparece bajo el nombre de *Astuliz*. De este modo entró a formar parte de su Hermandad de Salinas de Añana. Un siglo más tarde, en 1351, la encontramos ya como Astúlez, nombre que ha conservado hasta hoy.

Aún quedan vestigios de su época de mayor esplendor, con una edificación en lo alto de una peña con fines defensivos. Un castillo datado en el siglo X domina desde un altozano la población, dando testimonio de la necesidad de protección de estas tierras, al confluír en una importante ruta hacia la costa cantábrica desde Castilla, y ante el temor a las invasiones musulmanas. Éste es el único de los castillos de esta zona que perduró hasta época moderna, a diferencia de otros como los de Lantarón o Berbeia. Hoy pertenece al municipio de Valdegovía, dentro de la Cuadrilla de Añana.

San Millan eliza / Iglesia de San Millán

VILLAMADERNEN EDOTA Donemiliaga San Zadornilen gertatzen den antzera, santu ermitauaren izena oso errotuta ageri da patroï moduan Gaubeako inguru honetan, Erdi Aroaren lehenengo mendeetan; ziur aski, Donemiliaga Kululakoaren monasterioa hurbil egoteak mesede egingo zion.

Eraikinak jatorrizko egitura erromanikoa gorde du, oinplano angeluzuzena du, eta nabe bakarra; baina barrua nabarmen aldatuta dago. Jatorrizko eraikinaren bolumena apurtzen duten erantsien artean, aipatzekoa da oinplano karratuko dorrea, ez oso altua. Hiru zatitan banatuta dago, gero eta zati estuagotan: lehenengoa, behealdean, atari estuan sartzeko erdi-puntuko arku bat da; bigarren zatiak leiho karratu txiki bat du, eta horren gainean dago hirugarren zatia, kanpaiak babesten dituzten erdi-puntuko lau arku-ekin, eta lau isurkiko teilatuaren azpian. Eraikin osoaren horman harlangaitzezkoak dira, eta harlandua angeluetan eta bazterretan bakarrik erabili da, egitura sendotzeko.

Portada sartuta dago dorre azpiko eliza-atari estuan. Atari hori eraikina bera baino geroago egindakoa denez, portadaren bi muturrak erdi gordeta geratu dira. Arkibolta hiru arku zorrotzek eratzen dute. Kanpokoak da handiena, eta xake-motibo zabala du apaingarri moduan; bigarrenak, oso moldura sinplea; eta hirugarrenak, txikienak, ez du apaindurarik.

Inpostak landare-motiboz daude apainduta. Ezkerrekoak oso linealak dira: hiru uhin-lerroko apaindura baten gainean hosto handi bat agertzen dute, eta, ondoren, irudi bera, baina alderantziz, eta horrela, hurrenez hurren. J. López de Ocarizen arabera, landare-apaindura horiek Languedoceko lehenengo flora dakar gogora (horrela esan zion Denise Jalabertek). Eskuineko inpostak ere landare-motiboak ditu, baina mamitsuagoak eta biribilagoak dira, eta zurtoinek eratzen dituzten zirkuluen barruko hostoek zortzi zenbakiaren irudi antzekoak osatzen dituzte. Motibo hori oso diseinu komuna da, eta Valderejoko San Esteban elizako inpostetan errepikatuta ikus dezakegu, eliza honetatik kilometro batzuk mendebaldera.

Dorre arkupedunari eusten dioten hormen azpian ezkutaturik dauden kapitelak ere desberdinak dira. Ezkerrekoa linealagoa eta sinpleagoa da: ebaki geometrikoak dituen kubo bat da zilindro ildaskatu baten gainean jarrita, eta multzo hori burutzeko, lepoko bat. Eskuineko kapitela klasiko korintiarretan inspiraturik dago, baina danborra apaintzen, akanto-hosto lauak ditu, eta lore bat, albo bakoitzean. Fuste lisoko zutabeak plinto kubikoen gainera datoz, eta horien gainean daude harroinak, toru eta eskoziarekin.

ASÍ COMO OCURRE en Villamaderne o en San Millán de Zadornil, la advocación de este santo ermitaño fue muy arraigada en esta zona de Valdegovía durante los primeros siglos de la Edad Media, favorecida por el monasterio riojano de San Millán de la Cogolla.

Este edificio conserva su estructura románica original de planta rectangular y de una sola nave, aunque su interior fue notablemente modificado. Entre los añadidos que rompen con el volumen original del edificio, cabe destacar la torre de planta cuadrada y poca altura. Está dividida en tres partes que se van estrechando: la primera, en la parte baja, es un arco de medio punto que nos conduce al pórtico estrecho; la segunda tiene una pequeña ventana cuadrada, y sobre ésta se encuentra la tercera parte, con cuatro arcos de medio punto que acogen las campanas, bajo una cubierta de teja a cuatro aguas. La fábrica de todo el edificio es de mampostería, utilizando sillares solamente en los ángulos y esquinales para reforzar la estructura.

La portada queda embutida en el estrecho pórtico bajo la torre, de construcción más tardía con respecto al resto del edificio. Esto ha provocado que hayan quedado semicultos ambos laterales de la portada. La arquivolta está formada por tres arcadas apuntadas. La exterior, de mayor tamaño, muestra un grueso ajedrezado, la segunda es una moldura muy sencilla, y la tercera y más pequeña, carece de ornamentación.

Las impostas están decoradas con motivos vegetales. Las de la izquierda son muy lineales, mostrando una hoja grande sobre una decoración de tres líneas onduladas, que se repite de forma invertida consecutivamente. Según J. López de Ocariz, esta decoración vegetal parece evocar la primera flora de Languedoc, así definida por Denise Jalabert. La imposta del lado derecho tiene también motivos vegetales, pero más carnosos y redondeados, formando una especie de ochos con hojas en el interior de los círculos que forman los tallos. Este motivo podemos verlo repetido en las impostas de la iglesia de San Esteban de Ribera de Valderejo, situada varios kilómetros al oeste de ésta, ya que es un diseño muy común.

Los capiteles, ocultos bajo el muro que sostiene la torre porticada, también son diferentes, siendo el del lateral izquierdo mucho más lineal y sencillo, formado por un cubo con incisiones geométricas sobre un cilindro estriado que descansa en un collarino. El capitel derecho está inspirado en los clásicos corintios, pero con el tambor decorado por planas hojas de acanto con una flor en cada lateral. Estas columnas de fuste liso descansan en plintos cúbicos, y sobre ellos están las basas, con toro y escocia.



Kanpoaldea / Exterior



Portada / Portada

Dudarik gabe, elementu bereizgarrienak leihateetan ditu; bata eraikinaren oinetan dago, eta bestea, absidearen hegoko partean. Kontu handiz landutako harri zurizko harlandua da, eta, beraz, kontraste handia egiten du beste denean ageri den harlangaitz baldarrarekin. Batek, iparrekoak, arku zorrotz samarra du, eta ez du apaindurarik. Inpostak moldura sinplez daude eginda, eta azpian bi zutabe luze ageri dira. Ezkerreko kapitela gizonetzko baten buru luzanga du, trapezoide itxurako forma batean sartuta; aurpegiera markatua du, bizarra eta serio azaltzen da. Eskuineko kapitela hosto lauz dago apainduta. Portadan ikusi dugunen antzekoak dira, eta antzekoak ikusiko ditugu beste leihatean ere. Apaindura horrek guztiak saetera estu bat inguratzen du.

Beste barea absidearen beheko partean dago, eta pieza bakarrean egindako erdi-puntuko arku batek eratzen du. Orain arte ikusi ditugun portada eta leihoetan, berriz, arkuak dobelaz eratuta dago, eta indar-sistema bat eginda

Sin duda, sus elementos más significativos se encuentran en los ventanales, situados uno a los pies del edificio y el otro en la parte sur del ábside. Están realizados con sillares de piedra blanca cuidadosamente trabajada, por lo que contrastan con la tosca mampostería del resto del edificio. Uno de ellos, el de la parte norte, tiene un arco ligeramente apuntado y carece de decoración. Las impostas están formadas por una sencilla moldura, bajo la que se prolongan dos estrechas columnas. El capitel de la izquierda tiene una cabeza alargada de varón, incrustada en una forma trapezoidal, con las facciones ligeramente marcadas, barba y gesto serio. El capitel de la derecha está adornado por hojas planas, similares a las que encontrábamos en la portada y que encontraremos también en el otro ventanal. Toda esta decoración encuadra una estrecha saetera.

El otro vano, dispuesto en la parte del ábside, está formado por un arco de medio punto elaborado en una sola pieza, a diferencia de lo que viene siendo habitual en por-

*Mendebaldeko leihoa**Ventana occidental*

ahokutzen da, inposten gainean ezarrita. Kasu horretan, funtzio horiek guztiak betetzen dituen pieza bakarra dago, eta, beraz, arkitrabe baten antzera, horren funtzionamendua ateburu-sistema bati dagokio. Konponbide arkitektoniko hori beste eraikin batzuetan ere ageri da, esaterako, Astulez ipar-mendebaldera, Valluercako Andre Maria elizan dauden leiho-saietera estuetan.

Arkuak inposten gainean dago, eta horiek ez daude denak maila berean jarrita; izan ere, kapitelen tamaina desberdinaren ondorioz, arkuaren muturretako bat bestea baino luzeagoa da. Ezkerreko kapitalaren lekua ikusita, argi dago ez dela ondo egokitzen; beraz, ziurrenik lehen beste nonbait egongo zen, eta geroago erabili zuten horretarako. Eta horrek eragiten du desoreka. Kapitel hori txikiagoa da, eta hosto bertikal oso lauak ditu, erpinetan zitore hori txikiakin goiko behera.

Eskuineko kapitelak, berriz, esanahi handiko gai bat agertzen du. Gaur egunera arte atal horrek bakarrik iraun badu ere, ematen du programa ikonografiko baten zati bat baino ez dela, eta gaian, elizaren ebanjelizatzeke lana aipatzen da; hain zuzen ere, San Martin Toursekoak, bere patroiak egin zuen lana. Aurreko aurpegian, txalupa bat eta barruan bi arrantzale ikusten dira arrantzan, arraun handi batzuekin, eta itsasoaren mugimendua imitatzen duten hiru arrain luzeren gainean daude. Alboko aurpegiak sare sendo eta tamainaz neurrigabeak daude, oso modu latzean landu-

tadas y ventanas, donde el arco está formado por dovelas que se encastran ejerciendo un sistema de fuerzas, apoyándose sobre las impostas. En este caso encontramos una sola pieza que cumple todas estas funciones, de manera que su funcionamiento, a modo de arkitrabe, se corresponde a un sistema de adintelado. Esta solución arquitectónica podemos encontrarla repetida en otros edificios, como los estrechos ventanales-saeteras de la vecina iglesia de Santa María de Valluerca, situada al noroeste de Astúlez.

El arco apoya sobre las impostas, que no se muestran alineadas en el mismo nivel, ya que el distinto tamaño de los capiteles obliga a que uno de los extremos del arco sea más largo que el otro. Posiblemente se deba a que el capitel de la izquierda se haya reutilizado, pues no se adecua al espacio reservado para él. Este capitel, de menor tamaño, presenta hojas verticales muy planas con pequeñas flores de lis invertidas en los ápices.

El capitel de la derecha, sin embargo, nos muestra un tema historiado de gran significación. Pese a que parece que formó parte de un programa iconográfico del que sólo ha llegado a nuestros días este fragmento, su temática hace referencia a la función evangelizadora de esta iglesia, misión que cumplió San Martín de Tours, su patrón. Se trata de una escena de pesca, que muestra una barca con dos pescadores y sendos remos, sobre tres peces alargados que insinúan el movimiento del mar, en la cara frontal. En

ta, gainazal guztia hartzen. Giza irudiak aurpegi handiekin irudikatuta daude, trazuak igartzen dira baina oso higatuta daude; eta gorputzak oso sinple daude eginda. Irudikatzen duten eszenari begiratuta desberdintasunak badituzte ere, antzekotasun handia dute Burgosko Losako haranean, Astuleztik 20 km ipar-mendebaldera dagoen Losako San Pantaleon basilizak portadan duen kapitel batekin. Azken kasu honetan hirugarren pertsonaia bat ageri da txalupatik kanpora. Erliebea markatuagoa da, baina pertsonaia eta txalupa antzera daude eginda; beraz, argi ikusten da Arabako elizan eragina izan zuela. Arrazoi beragatik, irudi hori erlazioa genezake Criales inguruan, La Cerca dagoen Jasokundeko Ama Birjinaren elizako beste kapitel batekin; Losatik hurbil dago, hori ere Burgosko lurretan. Kasu horretan ere hiru pertsonaia daude irudikatuta, denak txalupa

el lateral vemos unas gruesas y exageradas redes, tratadas de forma más tosca, que cubren toda la superficie. Estas figuras humanas están representadas por grandes caras, con rasgos insinuados y erosionados, sobre cuerpos muy simplificados. Existen diferencias respecto a la escena representada, pero podemos ver cierto paralelismo con un capitel de la portada de la ermita de San Pantaleón de Losa, en dicho valle burgalés situado a menos de 20 km al noroeste de Astúlez. Aquí encontramos un tercer personaje fuera de la barca. Tiene un relieve más pronunciado, pero los personajes y la barca son de ejecución muy similar, por lo que puede entreverse su influencia en la iglesia alavesa. Por el mismo motivo también podríamos relacionar esta imagen con otro capitel de la iglesia de Nuestra Señora de la Asunción de La Cerca, en el entorno de Criales, próxi-



Burualdeko leihoa

Ventana de la cabecera

barruan, absideko leihate batean dagoen kapitela batean. Arrantzaren mirariari buruzkoa da.

Hemen irudikatuta dagoen gaiak lau ebanjelariak aipatzen duten Itun Berriko pasarte bati egiten dio aipamen: dizipuluen bokazioa eta arrantzaren miraria, Jesusen bizitza publikoaren lehenengo urteetan, Galileako aintziraren ertzean. Hala kontatzen da Mt. 4, 18-25, Mk. 1, 14-20, eta Lk. 5, 1-11 pasarteetan. Joaneke Jn 21, 1-18 kapituluak kontatzen dena ere izan zitekeen: Jesus, berpiztu ostean, Simon Petriri agertu zitzaioneko, Tiberiades aintziraren bazterrean. Dena dela, gai hori oso gutxi irudikatu izan da Erdi Aroko ikonografian, eta, beraz, aurreko aipamenei buruzkoa dela pentsatzen dugu: lehenengo dizipuluak gizon-emakumeen arrantzale bihurtu zirenekoa.

Eraikinak, barruan, aldaketa handiak izan ditu. Gaur egun arku zorrotz bat dago, eta eliza bi zatitan banatzen du: burualdea eta naberearen beste zati guztia. Banaketa horren protagonismo handiagoa ematen dio aldareari burualdearen barruan. Estalkia gurutze-gangaz eratuta dago, nerbiorik gabe, eta parpain-arkuekin zatituta dago. Aldarea San Millan tenpluko patroiarri eskainita dago.

Barruan, bazter batean, bataiarri sinple bat dago. Ez du apaindurarik ontziaren kanpoaldean, ezta barrualdean ere, eta lurzoruaren gainean ezarrita dago zuzenean, oinik gabe.

Testua eta argazkiak: JCE/MLAI

mo a las tierras de Losa, en la provincia de Burgos. Aquí encontramos la representación de otros tres personajes, todos ellos dentro de una barca, en un capitel colocado en un ventanal del ábside. Hace alusión a la pesca milagrosa.

La temática aquí representada hace referencia al pasaje del Nuevo Testamento, tratado por los cuatro evangelistas, sobre la vocación de los primeros discípulos y la pesca milagrosa, durante los primeros años de vida pública de Jesús a orillas del lago de Galilea. Encontramos estas citas en Mt. 4, 18-25, Mc. 1, 14-20, y Lc. 5, 1-11. También podría verse en el capítulo recogido por Juan en Jn 21, 1-18, en una de las apariciones de Jesús ante Simón Pedro tras su resurrección, junto al lago Tiberiades, pero éste es un tema poco representado en la iconografía medieval, por lo que presuponemos que se trata de las citas anteriormente comentadas, en las que los primeros discípulos se convertirían en pescadores de hombres.

El interior de este edificio ha sufrido fuertes modificaciones. Hoy encontramos un arco apuntado que divide la iglesia en dos partes: la cabecera y el resto de la nave. Esta separación da un mayor protagonismo al altar dentro de la cabecera. La cubierta, formada por bóvedas de crucería y sin nervios, está dividida por arcos fajones. El altar está dedicado San Millán, patrón del templo.

En el interior también encontramos en una esquina una pila bautismal muy sencilla, sin decoración exterior ni interior en la copa, y que reposa directamente sobre el suelo, sin pie.

Texto y fotos: JCE/MLAI

Bibliografía / Bibliografía

GÓMEZ GÓMEZ, A., 1998, p. 133; LÓPEZ DE GUEREÑU, G., 1962, p. 406; LÓPEZ DE OCÁRIZ ALZOLA, J. J., 1997b, p. 46; LÓPEZ DE OCÁRIZ ALZOLA, J. J., 2003, pp. 87-89; LÓPEZ DE OCÁRIZ ALZOLA, J. J. y MARTÍNEZ DE SALINAS DE OCIO, F., 1988, pp. 64-66; LÓPEZ DE OCÁRIZ ALZOLA, J. J. y MARTÍNEZ DE SALINAS DE OCIO, F., 1990, p. 58; PORTILLA, M. J., 1983, pp. 47, 61; SÁENZ DE URTURI, F., 1987, s/p.